



251. zenbakia

• Maiatza 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Nora doaz orduak...

Ana Blandiana (Xabier Bovedak euskaratua)

Nora doaz orduak?
 Oharkabea joateko era susmagarria dute,
 inork igarri barik.
 Desagertu eta kito?
 Baina zer da *desagertzea*?
 Nola liteke izan den zerbaitek
 izateari uztea
 egundo izan ez balitz bezala?
 Nora doaz orduak, ez non eta ez han?
 Eta, batez ere, nondik datoz
 paperezko ontzien antzera
 emaro-emaro
 buruz ikasitako olatuekin
 marraztu den itsasoaren gainean?



Irailaren 16tik aurrera

Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:

EGUN ERO magazina

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:

EGUN ERO KANTUZ eta MEMORIAREN TXOKOA

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,

BROMA GUTXI

(larunbatetan 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arrosa sareko irratsaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!

FM-ko107.9 edo

amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte eta Virginia Urdaniz Oartzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Arantxa Puignau.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira maiatzaren 7an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Oskozko kooperatiba*

07

Berezia. *Rita Elizondo*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Ekimenak. *Euskaraldia*

20

Gure hizkera. *Uspela*

22

Aspaldiko kontuak. *Etxe izenak*

25

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

26

Ardo freskoa. *Efe-z hasten diren hitzak*

28

Kirola. *BTT eskola*



30

Elkarrizketa. *Anne Oartzun Domeño*

32

Zer irakurri. *Cholita hegalarari martetarra*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Martxoa*



Herritarrak, minda isurketak salatzeaz eta erantzunik ez jasotzeaz nazkatuta

Imotzen, Oskoztik Muskitzerako errepidearen ondoan dago kokatua San Miguel de Aralar nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatiba. Behi eta ardi esnea ekoizten dute bertan, eskala handian. Duela zenbait hamarkadatik, ordea, herritar asko kexu dira enpresak hartu duen bidearekin, eta minda isurketak behin eta berriz salatu dituzte. Administrazioaren partetik ez dute erantzun eraginkorrik jaso orain arte.

Oskozko herrian oso errotua dagoen kooperatiba da San Miguel de Aralar, herriaren historiarekin lotura estua duena. Izan ere, 1964an sortu zuten proiektua herriko 16 bat familielik, gutxi gorabehera, herriaren heren batek. "Herritarrak bertan bizitzen gelditzeko eta abeltzaintzan lan egitea bultzatzeko espirituarekin jarri zuten martxan kooperatiba bere garaian", gogoratzen dute eskualdeko herritarrek.

Hastapenetan kooperatiba txikia zen, herriko hainbat etxetako ukui-luetan zituzten abereak, guztira 35 bat behi eta 300 bat latxa arrazako ardi zituzten, eta 100 hektarea pasa larre. Maneiuari dagokionez, azientak kanpora bazkatzera ere ateratzen zituzten. Baina, 1969an kooperatiba kokaleku bakarrean kontzentratu zuten eta Nafarroako beste toki gehienetan bezala, Oskotzen ere intentsifikatzea eta abelburu kopurua mugagabe handitzea izan da geroztik joera, administrazioetik ere bultzatu dena. Eta horrek ondorio latzak ekarri ditu.

Caparroso txiki bat Oskotzen?

Valle de Odieta enpresak Caparroson duen makroetxaldeaz asko idatzi da azken urteotan komunikabideetan, eta Nafarroako makroetxaldean aurkako plataformak ere salaketa ugari egin ditu. Bada, Imozko herritarrek salatzen dute

abelburu kopuruan Caparroso bako askoz txikiagoa izanagatik ere, Oskozko kooperatiba, dagoen tokian kokatuta eta inguruak duen orografia izanda, neurritz kanpoko delatuz guztiz jasangarritasunaren ikuspegitik.

Kooperatibako bazkide oskoztarak 2022an Nafarroako egunkari batean zioenez, 1.040 behi buru zituzten momentu hartan. Herritarrek kalkulatu dute gaur egun ere mila behitik gora eta beste hainbeste ardi dituztela. 2001etik jezte automatikoa dute etxaldean, bederatzi roboten bidez egiten dutena, eta hilean 600.000 litrotik gora ekoizten dituztela zioten 2022ko bideo batean, behi bakoitzeko, gutxi gorabehera, 40 litro egunean. Nafarroako Parlamentuak onartutako 1053/2022 Errege Dekretuaren eguneraketan, behi-etxaldean ekoizpen muga 850

azienda larri unitatera murriztu zuten ustiategi berrientzat. Lehenagotik martxan zeuden eta zenbaki hori gainditzen zuten ustiategiekin, ordea, bolumena mantentzeko aukera dute, baina inoiz ez handitzeko edo instalakuntzetan produkzioari lotutako aldaketarik egiteko.

"Multinazional batean bilakatu da kooperatiba, eta hasieran jende askoren artean abiatu zen proiektua bost edo sei bazkideren eskutan gelditu da azkenean", diote herritarrek. Dimentsio horietako etxaldeek ingurumenari eragiten dizkioten kalteak handiak izan ohi dira, min den eta hondakinen kudeaketari dagokionez batik bat, baina ez horregatik bakarrik. "Kontuan izateko da bailarako beste zenbait baliabideren kontsumoa ere, adibidez, urarena. Pentsa abelburu kopuru horiek udan zenbat ur behar du-



Oskozko kooperatiba



Minda baltsa, gainezka egitear ▲

ten, ikaragarria da, eta horrek ura behar duen beste edozein proiektu abiatzea oztopatzen du”, azaldu dute zenbait herritarrek. Lurraren pilaketa ere aipatzekoa da, izan ere, garai batean patata, erremolatxa eta bestelako laboreak ekoizten baziren Oskotz inguruko lurretan, gaur egun dena erabiltzen da ganaduaren elikadurarako. 300 bat hektarea ditu kooperatibak, eta herritik Muskitz aldera pilatzen dira bere lursailak.

Haienez gain, Oskozko eta Muskizko pribatuen lurak eta komunalak ere erabiltzen dituzte minda zabaltzeko.

Minda balsa, gainezka eginda

Urteak daramatzate inguruko zenbait herritarrek salatzen etxaldeak minda isurketekin Imozko erreka kutsatzen duela. Diotenez, egunero ko ogia da, eta jende asko ohitzera ere iritsi da. Etxaldea, gainera, erre-

kasto bat pasatzen den tokian bertan eraiki zuten, eta harrigarria da, askoren ustez, hor eraikitzeke baimenak eskuratu izana bera. “Etxaldean dituzten siloek etengabe isurtzen dituzte lixibiatuak, eta horiek zuzenean doaz errekaora. Siloek botatzen dituzten fermentatutako likidoak dira lixibiatuak, uretara iristean oso kutsakorrek direnak”, azaldu dute herritarrek. Lixibiatuez gain, belardietan minda neurritz kanpo erabiltzea ere salatu dute hainbat pertsonak, baita erreka zuzenean isurketak egin izana ere. Nabarmena da hori, aparrez gainezka doalako askotan erreka. “Urteak dira errekan amuarrainak eta bestelako bizitza desagertu zenetik, dena hila dago”, diote.

Urte guztietako arazoei, beste kontu larri bat gehitu zaie azken hilabeteen: minda baltsak gainezka egin izana. Izan ere, etxaldetik 750 bat metrotara mendi aldera, minda likidoa pilatzeko baltsa handi bat eraiki zuten kooperatibak 1985-1990 ar-

Biometanizazio planta

Biometanizaziorako planta martxan jartzeko proiektua eskuartean dute orain Oskozko kooperatiban. Gorotzak denbora luzez fermentatzen utzita, metanoa ateratzean datza biometanizazio prozesuak. Nafarroan toki askotan ari dira planteatzen planta horiek, eta badirudi azken pagotxa dela, baina, zein da horien arazo nagusietako bat? Bada, nitratoak, metal pisutsuak eta beste zenbait elementu berdin-berdin gelditzen direla prozesua bukatutakoan, eta inguruak kutsatzeko aukerak hor segitzen duela. Horregatik, Sustrai Erakuntzak salatu du ingurumen ikuspegitik onura gutxi dakartzala biometanizazio plantak, eta ez dituela dimentsio handiak dituzten etxaldeen minda arazoak konponduko.

“Biometanizatza sartzan den minda kantitate ia berbera ateratzen da gero hortik, ia ez dago hondakinen murrizketarik”, diote. Karbonoen eta Hidrogenoen zati bat desagerrarazten da biometanizazio prozesuan, metanoa sortuz -CH₄ deritzona, karbono atomo bat eta lau atomo hidrogenoz osatua-. “Metanizadora izan edo ez, kudeatu beharko duten minda kantitatea ia berdina izanen da,



eta beraz, baltsaren arazoa konpontzen ez badute hor segituko du”, gehitu dute.

Berriki, alegazioak aurkeztu ditu fundazioak Oskozko eta Nafarroako beste zenbait etxaldek dituzten legehutsuneen aurrean. Besteak beste, salatu dute enpresaren Ingurumen Baimen Integratuari -AAI, Autorización Ambiental Integrada- dagokion daturik ez dagoela inon publikatuta, ezta buru kopuruari dagokion Errege Dekretuko neurriak errespetatzen direnaren egiaztapenik ere. Horrez gain, uholde-arriskuen aurreko plan bat ere falta dutela adierazi dute alegazioan. “Etxalde honek gaur gaurkoz dituen hutsuneak eta arazoak salatzea izan da gure helburua”, amaitu dute.



tean. 8.100 m²-ko azalera hartzen du baltsak, sei bat metroko sakonera du, eta 42 milioi litro inguruko edukiera duela kalkulatu dute herritarrek. Etxaldean mindaren zati solidoa likidotik bereizten dute, eta lurrazpiko hoditeria sistema baten bidez goiko baltsara ponpatzen. Goiko baltsatik kooperatibaren larreetara ere hoditeria sistema berezi baten bidez bidaltzen dute minda, larre horietan 50 bat metroko hodiak ateratzen direlarik. Sistema oso aitzindaria izan omen zen bere garaian.

Zer gertatu da azken hilabeteen? Bada, martxoaren 8an euri asko bota zuen, eta baltsak gainezka egin zuen lehen aldiz. "Geroztik, etengabe ari da gainezka egiten, euria egiten duen aldioro", diote herritarrek. Martxoaren 8tik 31ra bitartean Oskozko estazio meteorologikoak 132,3l/m²-ko prezipitazioak neurtu zituela kontuan izanda eta kalkuluak eginda, milioitik gora litro minda mendian behera barreiatu direla ondorioztatu daiteke, larreak eta errekek kutsatuz.

Herritarrek salatzen dutenez, kooperatibak ez du behar bezalako mantentze lanik egiten, eta urteak dira baltsa hondoa pilatzen diren hondakinak garbitzen ez dituztela. Horregatik, geroz eta edukiera murriztagoa du eta errazago egiten du gainezka. "Neurrian dago gakoa,

baina baita mantentzean ere: ez da instalakuntzen beharrezko zaintza egiten, ez baltsarena, ezta lurrazpiko hoditeria sistemarena ere", diote.

Administrazioa, entzungor

Inguruko herritarrek salaketak jarri dituzte azken urteotan isurketen eta baltsaren arazoaren aurrean, baina guztiz babesgabe daudela nabarmentzen dute guztiek. "Nola da posible Nafarroako Gobernuak gertatzen ari dena jakitea eta beste aldera begiratzea?", galdetzen du erasoar batek. Izan ere, Sepronakoak, Foruzaingoa, Nafarroako Mendizainak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa ere egon dira bertan, eta gertatzen ari denaren jakitun dira. "Haiek ere zur eta lur gelditzen dira dagoen inakzioa ikusita", gehitzen dute. Salatzen segitzeko esaten die, eta horretan ari dira, baina esperimentziak erakutsi die erantzun handirik ezin dutela espero, momentuz, administrazioaren partetik.

"Honen atzetik interesak daudela uste dugu askok, guri informazioa falta zaigu edo ezkutatu egiten zaigu", dio batek. Beste batek honakoa gehitu du: "20 salaketa daudela diote Basozainek, baina kooperatibak multetan 20.000 euro besterik ez du ordaintzen urte bukaeran, hori kantitate barregarria da haientzat, eta konpentsatzen die". Guztiek bat egiten dute administrazioaren ardura

falta azpimarratzean: "Insituzioek, administrazioak, Nafarroako Gobernuak eta gaiok dagozkien departamenduek bermatu beharra dute horrelakorik ez gertatzea". Arazoa izan liteke, akaso, hain zuzen administrazioetik bultzatu den eredua dela Oskozkoa? Galdera hauek bota ditu herritar batek: "Nor da erruduna? Kooperatibakoak? Batere jasangarria ez den modelo hau onartu eta bultzatzen duena, baimenak ematen dituen...?".

Dena dela, eta herritar asko kexu izan arren, beste askok egoera 'normalizatua' dutela diote elkarriketatuek, eta aspaldiko kontua izanik, beste aldera begiratzen dutela. "Arazoaren berri denok dugu, baina jende askok ez du honetaz hitz egin nahi, zeren agian kooperatibak zure sororen bat erabiltzen du, edo zure auzokidearena, edo herriko komunalak, edo ezagunak dituzu kooperatiban lanean... orduan, zaila da honetaz hitz egitea, batzuentzat trukean 'ordaindu beharreko prezioa' da, nolabait", azaldu du muskiztar batek. Oskotzen bertan ere, garai batean herriko familia gehienak kooperatibako kide zirela kontuan izanda, pentsatzekoa da agian zenbaitek zer bait kobratzen segituko duela egun oraindik, eta ez dutela arazorik nahiko haiekin.

Eta, bestetik, kooperatiban arduradun postua duen bazkide nagusietako bat, Marian Iribarren, duela hamalau bat urtetik Oskozko Kontzejuko kide izateak ere zailduko du, agian, herritarrek hitz egin nahi izatea. Kontzejuan ez ezik, 2007tik 2011rako legealdian Imozko udaleko alkate ere izan zen Iribarren, eta hurrengo legealdian, berriz, zinegotzi. Berriki, azken asteotan, justu minda baltsak gainezka egin duen egun bertsuetan, Nafarroako ardi-eta behi-abeltzainen kooperatibako lehendakari izendatu dute.



Erreka, aparrez gainezka, isurketen eraginez



Martxoaren 26an Rita Elizondo hil zen 96 urtetan

Virginia Urdaniz Oiartzun irakurleak bere izeba Rita Elizondori eskainitako testua bidali digu. Latasakoa, Gaskuera ezkondua, martxoaren 26an hil zen, 96 urtetan. Izebaren oroitzapen politak ditu ilobak eta horietako bat, Pulunperekin lotua, partekatu nahi izan du. Eskerrik asko.

Rita Latasan jaio zen eta Gaskueko Loperenara joan zen Vicente Urdanizekin ezkondu zenean. Geroztik hor bizi zen.

Istorioko polit bat konpartitu nahi dut Pulunpeko lagunekin.

Ni bere iloben askotariko bat naiz, nire aita Loperenakoa zen. Horregatik, txikitatik, Gaskueko Loperenara maiz joan gara. Gure izebaz zerbait nabarmendu behar bada, etxera joaten zen jende guztiari egiten zion harrera da. Oso pozik hartzen zituen guztion bisitak eta hara hurbiltzen gineno etxean baino hobeto sentiarazten gintuen.

Nik euskara badakit eta ailegatzeko nintzen bakoitzean Pulunpeko ale guztiak zituen niretzat gordeta. Horrela ezagutu nuen aldizkaria eta haren bidez informazioa, pasadizoak, berriak eta hizkirimiri guztiak ezagutu ditut.

Hemendik aurrera aldizkaria irakurtzen jarraituko dut eta irakurtzerakoan berarekin oroitzuko naiz beti.

Eta horretaz aparte Gaskueko Loperenera joaten jarraituko dut, zeren badakit bere semeek amaz zerbait ikasi badute, familiakoak etxean hartzeaz eta beraiekin hitz egiteaz gozatzea dela.

Gure izeba Ritak, beste arbasoek bezala, gauza asko irakatsi dizkigu.

**IZAN ZIRELAKEO, GARA.
GARELAKEO, IZANEN DIRA.**



Virginia Urdaniz Oiartzun



Errioxa, Laguardia eta Ziaurritz

Apirilean gertatutakoa kontatuko dizuegu kronikatxo honetan. Udaberriko mus txapelketaren bukaeraz ariko gara lehen zatian, eta Denok Bat elkartearen jai egunarein segituko dugu. Bukatzeko, hilabete honetako ateraldia ere azalduko dizuegu.

Udaberriko mus txapelketaren bukaerarekin hasiko gara, esan bezala. Aurtengoan, 24 bikote aritu ziren, denak denen kontra ligaxka moduan. Otsaileko, martxoko eta apirileko ostiraletan izaten ziren partidak, Larraintzarko bentan.

Azken egunera arte ez da jakiten nortzuk diren sarituak, izan ere, lehen zortzi-hamar bikoteen artean puntuaketa oso estu egoten da. Finalaren egunean elkarrekin bazkaldu ondoren hasten dira azken partidak, eta hona hemen sailkapeneko lehen hiru bikoteak:

Txapeldunak:

Jose M^a Iraizoz Recalde
Jose Yaben Mariñelarena

Bigarrenak:

Agustin Ciganda Guerendiain
Santiago Iraizoz Etualin

Hirugarrenak:

Mari Jose Goizueta Elgorriaga
Iratxo Esain Aldaz



Aurten 85 Urte egiten dituztenak ▲



Aurten ezkontzako urrezko ezteiak egiten dituztenak ▲



Parte-hartzaileak Gizarte zentroko atarietan ▲

Apirilean elkartearen eguna ospatzen dugu. Egun horretan bazkide batzuei omenalditxoa egiten diegu, alde batetik 85 urte betetzen dituztenei eta bestetik ezkontzako urrezko ezteiak egiten dituztenei. Aurtengoan Larraintzarko elizan egin genien omenaldia, oroigarri bana emanez, eta gure errespetua eta miresmena erakutsiz.



Goiko pisuko jangela dena guretzat genuen ▲

Omenaldiaren ondoren, autobusak hartu eta Mugiroko bentara joan ginen bazkaltzera, barnean egoiteko eguraldia bai zegoen. Ederki eman ziguten, ohi bezala, janari goxoak eta ongi prestatuak.

Eta festa genuenez, musika ezin falta! Jose Angelen musikarekin dantzan ibili ginen, urrezko ezteiak egiten zituztenak hasiera eman ondoren, iluntzeko zazpi t'erdietaraino. Pozez beterik etxerako

bidea hartu genuen ordu horretan, egun zoragarria pasatu ondoren.

Apirileko ibilaldia Etsain herrira egin genuen, eta 18 lagun bildu ginen. Hasteko, zenbait auto Etsainen utzi genituen, eta Egozkueko lepora igo ginen denok. Han hasi genuen ibilaldia, eta Baratxoetara igo ginen lehenbizi, bertako ikuspegi zoragarriez gozatzen. Ustxi aldera jaitsi ginen segidan, eta gero, berriz, Etsaina. Guztira 13 kilometro izan ziren, 3 ordu eta erdiz egin genituenak. Leku garaiena 1.145 metrotara zegoen. Ohiturari segituz, elkarrekin bazkaldu genuen ibilaldiari bukaera on bat emateko.

Hurrengoan Sos del Rey Catolico-ra eginen dugun txangoaren berri izanen duzue, besteak beste. Birtartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



▲ Ibilbideari hasiera emanez



Errepresaliatutako Basaburuko maisuari eta medikuari, omenaldia

Faxismoak eta frankismoak 40 bat herritar errepre-saliatu zituen Basaburuan eta Basaburuko Ahaztuak herri ekimenak haiek omentzeko sortu zen. Ilarregín Pascual Lazkano holokausto naziaren biktimari ekitaldia eskaini zioten urtarrilean eta, orain, Basaburuko maisuari eta medikuari, maiatzaren 18an.

Francisco Javier Iturbide medikua izan zen gurean, eta Nemesio Delgado, Igoako maisua. 1936ko kolpe faxistaren ondoren atxilotu, jipoitu eta espetxeratu egin zituzten. Eta, ondoren, gainera, baztertu egin zituzten eta ezin izan zuten beren lanbidean berriro jardun. Ahaztuak taldeak oharrean aipatu bezala: "Haiek kartzela, umiliazioa eta mespretxua jasan zituzten sinesten zuten horretan lan egin eta borrokatzeagatik, osasun publiko eta unibertsala Francisco Javier Iturbide doktorearen kasuan, eta hezkuntza publiko, laiko eta herrikoia Nemesio Delgado maisuaren kasuan. Gaur, inoiz baino gehiago, borroka horrek dirau".

Horregatik, omenaldia egingen diete, Txokolateroren etxearen atzean, Jauntsaratsen, maiatzaren 18an, 12:00etan. Ekitaldiaren bidez, eta osasun-zentroan eta eskolan bi plaka jarrita, haiekin egindako bidegabekeria oroitarazi nahi dute. Egun horretan, gainera, esan duten bezala, "ez ditugu ahaztu nahi frankisten altxamenduaren ondorioak modu batera edo bestera pairatu zituzten Basaburuko 40 seme-alaba baino gehiago". Nafarroak osasun eta hezkuntza arloan aritzen diren ordezkariak ere gonbidatuko dituzte ekitaldira.

Bestetik, gure eskualdetik kanpo, beste memoria ekimen bat izanen dugu egunotan, faxismoaren errepre-saliatuen alde: La Fuga mendi

martxa. 1938ko maiatzaren 22an Europako ihesaldirik handiena gertatu zen Ezkabako presondegitik. Ia 800 presok, gehienak politikoak eta estatu kolpe faxistan atxilotutakoak, ihes egin zuten Iparraldeko muga zeharkatzeko asmoz. 206 erail egin zituzten eta beste gehienak presondegira itzuli. Muga zeharkatzea lortu zutenak hiru izan ziren. GR-225 bideak haiek jarraitutakoa osatzen du eta maiatzaren 17an, guztien omenez, hura egingen duen mendi martxa izanen da. Izen ematea zabalik da: <https://www.lafugamendilasterketa.com>.





Mendialdeko Azoka Ibiltariak itzuli dira

Bueltan da berriz Mendialdeko Azoka Ibiltarien ekimena. Apirilaren 13an izan zen lehena, Betelun.

Mendialdeko Azoka Ibiltarien seigarren edizioa da aurtengoa. Urtero bezala, bertako produktuen kontsumoa bultzatzea eta ekoizleei zuzeneko salmentarako bideak eskaintzea da ekimenaren helburua. Mendialdeko eskualde zabaleko ekoizle eta artisauen 22 postu izan ohi dira bertan, tartean, Ultzama aldeko zenbait ere bai. Hona hemen lehen azokan parte hartu dutenen zerrenda:



Elikagaiak

- **Katealde** (Altsasu) – Ahatekiak
- **Ama-Ur** (Amaiur) – Garagardo artisaua
- **Juanbeltz gazta** (Beruete) – Gaztak
- **Gormutxa** (Azpilkueta) – Gaztainetik eratorritako produktuak
- **Pittika gasnategia** (Erratzu) – Behi gasna ekologikoa
- **Lurmendi** (Eulate) – Marmeladak
- **Malloak gaztak** (Gaintza) – Idiazabal gasna
- **Ekollaondo** (Goldaratz) – Ahuntz gasna
- **Saralegi taloak** (Leitza) – Taloak
- **Ekosagar** (Oskotz) – Zukuak eta marmeladak
- **Beloki Mendia** (Uztegi) – Gasna

Artisauak

- **Amasuluk** (Aizarotz) – Bitxiak
- **Zapatari** (Eraso) – Zapatak
- **Agueda Goikoetxea** (Imotz) – Larruzko eta zilarrezko bitxiak
- **Iker Uribe eta Ioana Ziganda** (Irurtzun) – Haurrendako produktuak
- **Su Ta Lur zeramika** (Izurdiaga) – Keramika eta burnia
- **Kihan** (Lekunberri) – Joskuntza
- **Sojonatura** (Lekunberri) – Erle argizariarekin kosmetika naturala
- **Argizpi** (Uitzu) – Soia kandelak eta usaintsuak
- **Eleniren txokoa** (Betelu) – Gantxiloa
- **Arantza Azpiroz** (Arribe) – Keramika, beira
- **Kaikus Ángel Beunza** (Guerendiain) – Kaikuak eta zurezko tresnak



Nafarroako X. Rogaine proba, Basaburuan

Rogaine orientazio kirol proba bat da, taldean jokatzeko dena. Nafarroako azkena 2021ean egin zen, Aralarren. Aurtengoan, indartsu itzuliko da, X. edizio batean eta 2018an egin bezala, Basaburua aukeratu dute kokalekua. Maiatzaren 24an egingen da eta hiru, sei eta hamabi orduko ibilbideak izanen ditu. Izena emateko eta informazio guztia odeportivonavarramaraton.blogspot.com webgunean aurkituko duzue.



Irakurle txikien kluba abiatu dute Ultzaman

6 eta 8 urte bitarteko haurrendako (LH1 eta LH3 artekoak) irakurle txikien kluba antolatu du Ultzama-ko udalak, Euskara Zerbitzuarekin eta Galtzagorri elkartearekin elkarlanean. Irakurketa sustatzea eta familian literaturaz eta euskaraz gozatzea da ekimenaren helburua.

Galtzagorri elkarteak haurren artean irakurketa sustatzeko hainbat ekimen ditu abian, eta horiek izanen dira proiektuaren giltzarri. Proiektu pilotua da Ultzaman abiatu dutena, eta haurrek haien guraso euskaldunekin eta Galtzagorri elkarteko langile batekin eginen dituzte saioak. Doakoak izanen dira.



Apirilaren 29an izan da lehendabiziko saioa, maiatzaren 13an izanen da bigarrena, eta ekainaren

10ean, azkena. Guztiak, 17:00etatik 18:00etara izanen dira Larrain-
tzarko liburutegian.

Basaburuko eguna, Berueten



Basaburuko Eguna aitzinako formatura itzuliko da eta Jauntsaratsen ospatu ordez herriz herri mugitzen joanen da berriz ere. Aurten, Berueten izanen da, ekainaren 7an herriko alkateak biltzen dituen Kontzejuen Udal Batzordean erabaki zen bezala. Ireber elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen du eguna. Ospakizunak 40 urte

baino gehiago ditu eta aldaketa behar zuela erabaki du antolakuntzak. Honezkero egitaraua osatzen hasi dira: goizean herri kirolak, bailarako kideak dituen Ultzamaldekoko Herri Kirol taldearekin; ondoren, bazkaria; eta, arratsaldean eta iluntzean, musika. Egunez frontoian izanen da hitzordua eta gauez Berueteko plazan.

MIKEL
AZKARATE TOMASSONE
ABELTZAINA
/ ANIZ /

**LANDA-INGURUNEAN
BIZITZEA
ABANTAILAZ ETA
AUKERAZ BETETAKO
ETORKIZUNeko
AUKERA DA**

**ITZULI
ETA
Ekin**

**KONEK
TATZEKO
GERATU**

ESTITXU
LARREA LEACHE
DISEINATZAILE GRAFIKOA
/ AGOITZ /

ÁLVARO
GÓMEZ NIETO
FAMILIAKO MEDIKUA
/ IZABA /

**HAZTEKO
GERATU**



ruralmood.com

**Pueblos
activos
pueblos
vivos**

**Herri
gogotsiak
herri
biziak**

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

Agenda
2030

cedema
garalur

consorcio
EDER

Teder

ZONA-MEDIA
CONSORCIO DE DESARROLLO

#RURALMOOD



Hemen da berriz euskaraz egiteko eta eragiteko ekimena

Jendearen hizkuntza ohituretan aldaketa eragiteko eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sortu zuten 2018an Euskaraldia ekimena. 2020an egin zen bigarren ekimena eta 2024an hirugarrena. Aurten, maiatzaren 15etik 25era izanen da laugarren edizioa, 'Elkar mugituz egingo dugu' lemapean. Eskualdeko hamar lagun izanen dira Euskaraldiko enbaxadoreak.

Belarriprest edo Ahobizi? Bi rol horiek mantendu dituzte aurtengo Euskaraldia ekimenerako, baina aurrekoan bezala, entitate, enpresa nahiz elkarteei zuzendutako Ariguneen figura ere egonen da. Apirilaren 10ean egin zuten eskualdeko enbaxadoreen argazkia, Orgiko oihanean. Imotz, Basaburua, Ultzama, Atetz, Anue eta Odietako ordezkariak izan ziren bertan. Tartean ziren bertan jaio-takoak, kanpotik etorriak, euskara jatorrizko hizkuntza dutenak nahiz ikasten ari direnak. Guztiak batzen ditu Euskaraldiak, eta erraztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, guztiek erantzun dituzte Pulunperen galderak euskaraz, ekimenaren filosofiarekin bat eginez.



Elena, Gerendiain (Ultzama)


“Tarragonakoa naiz ni, baina Gerendiainen bizi naiz. Gaur egun euskararekin dudan harreman handiena ikasten ari naizela da, baina egia aitortu behar badut, nire egunerokoan gehiago ere erabil nezake, bai lanean eta baita aisialdian. Familian zailagoa zait, etxean normalki gaztelaniaz egiten dugu, eta bi semeekin, gainera, katalanez. Garrantzitsua baino, esanen nuke Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak direla. Ni, zorionez, bi ama-hizkuntzeekin hazi naiz, eta ohartzen naiz praktikatzeko ez bada jarioz galduta egiten dela. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait horrelako kanpainak egitea, euskara mantentzea ez ezik, bultzatzea eta mantentzea. Belarriprest txapa eramateak, gainera, jende gehiagok euskaraz hitz egitea errazten du, komunikazio kanala irekitzen du besteek zuri euskaraz hitz egiteko. Ni batzuetan ez naiz hitz egitera animatzen, baina entzutera bai”.





Irati, Beruete (Basaburua)

“Euskara nire ama-hizkuntza da, txikitatik etxean eta inguruan euskaraz egin dut, eta erdaraz gerora ikasi nuen, eskolan. Nik uste dut ekimen hauekin kontzienteago bihurtzen garela, egunerokoan ustez dena egiten dugu euskaraz, baina Euskaraldian txip hori piztua dugu, eta ohartzen gara beti ez dela horrela, agian batzuetan erdaraz eginen genukeela. Kontzienteago gara horrekin”.



Mina, Etxaleku (Imotz)

“Angolakoa naiz baina Etxalekun bizi naiz. Bikotekidea euskalduna da, eta euskara gustatzen zait. Seme-alabak izan nahiko nituzke noizbait, eta haiei euskara irakatsi nahiko nieke. Ekimen hau oso garrantzitsua da euskararentzat, euskara gorde, zaindu, babestu eta suspertu behar dugulako aurrera egin dezan. Horregatik izanen naiz enbaxadore. Identifikatua sentitzen naiz euskararekin, hizkuntza inklusiboa delako, ez dio azalaren koloreari begiratzen, ezta ileari, diruari, jatorriari... errespetuzko hizkuntza da euskara, nire ustez”.

Leire, Gaskue (Odieta)

“Segurarra naiz ni jaiotzez, baina 13 urte daramatzat Odietan bizitzen. Euskararekin ze harreman duan? Nire ama-hizkuntza da, beti, familian, etxean, euskaraz egin dut, beraz, niretzat nire hanka bat bezala da. Segura herri oso euskalduna da eta presentzia denean oso handia da. Orain bizi garen tokian gutxiago entzuten da, nahiz eta zortea duan seme-alabek euskaraz ikasi dezaketelako, eta eskolaz kanpokoak ere euskaraz dituzte. Baina, hala ere, iruditzen zait bultzada behar duela, horregatik garrantzitsuak dira ekimen hauek, eta batzuetan elkartzeko ere balio dute. Horrelako gogobiziarekin euskara ikasten ari direnekin elkartzeko eta elkar ezagutzeko aukera ematen digu, baita euskara nork dakien eta norekin egin dezakegun jakiteko ere”.



Jabi, Olague (Anue)

“Nire ama Urritzolakoa zen, eta berak euskaraz bakarrik egiten zuen. Gerora, Eltsora joan zen, eta Franko garaian ez zegoen ongi ikusita euskaraz egitea, horregatik galdu zen gure familian euskara. Orain, ordea, nire alabek-eta euskaraz ikasten dute, eta nik ere ikastea erabaki dut. Uste dut oso inportanteak direla ekimen hauek, jendea euskara ikasten ari bada, gero trebatzeko aukera ematen dietelako”.

**Alejandra, Aizarotz (Basaburua)**

"Aizarotzen bizi naiz, eta euskara ikasten ari naiz orain, alabarekin eta ingurukoekin euskaraz egin ahal izateko".

**Maitane, Iraizotz (Ultzama)**

"Euskara nire gurasoen, nire eta nire seme-alaben ama-hizkuntza da. Mundua begiratzeko eta ulertzeko tresna nagusia da niretzat, eta altxor bat, baina ez apalean gordeta edukitzeko altxorra, erabiltzeko altxor bat baizik. Nire ustez, euskaraz kontzienteki egiteko aukera bat da Euskaraldia, eta horrek atzetik badu meditazio bat, helburu jakin batekin egiten da. Ohitura batzuk aldatzen hasteko aukera dakar horrek, ttak hori egiteko aukera".

Edorta, Ziganda (Atetz)


"Nire hiru aitatzaiak euskaldunak ziren eta gaztelania baino gehiago erabiltzen zuten, baina nire gurasoek galdu egin zuten. Entzuten zuten, ulertzen zuten, baina ez zuten erabiltzen, eta nik ere eskolan erdaraz ikasi nuen. Orain, AEKn ari naiz ikasten. Uste dut euskara erabiltzeko, mugitzeko, dena dela garrantzitsua. Azkenean, garrantzitsua ez da Euskaraldian bakarria egitea, niretzat inportanteena euskaraz bizitzea da".

**Tere, Etxaleku (Imotz)**

"Lanean, kiroldegian, umeeekin eta jendearekin euskaraz egiten dut. Tira, eta etxean ere beti egin dugu euskaraz. Jende asko dago agian euskaraz erabat ongi moldatzen ez dena eta askatzea kostatzen zaiona, baina horrelako ekimenekin errazagoa da askatzea, uste dut gehiago animatzen direla, eta laguntzen duela. Guk, gainera igerilekuan Arigune gisa ere parte hartzen dugu, beraz, bakarrik ez ezik, taldean ere egiten dugu ariketa".

Gina, Eraso (Imotz)

"Kataluniakoa naiz ni, baina Erason bizi naiz orain. Hona bizitzera etorri nintze-nean pentsatu nuen euskara ikastea, uste dut garrantzitsua dela hizkuntza gutxi-tua delako. Nik beti diot, militantzia modukoa dela hau ere. Euskaraldia bezalako ekimenak garrantzitsuak dira euskara bizirik mantentzeko eta jendea euskaraz hitz egitera motibatzeko".



SEMANA DE EUROPA EN NAVARRA
5-11 DE MAYO

EUROPAKO ASTEA NAFARROAN
MAIATZAK 5-11



Propón tu propio acto | Proposatu zure ekitaldia
europedirectnavarra.eu/semanadeeuropa
#EuropeDirectNA #NavarreInEurope



EUROPE DIRECT
Navarra · Nafarroa

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua





Jare, Araia eta Aiur



Lagunak eta familia Labriten, Andoni Gaskueren finalean



Emakumeen bazkaria,
Larraitzarren, martxoaren 8an



Andoni Gaskuerekin txapela ospatzen



Ultzamako bertso eskolako ikasleak Alaia Martinek eta Miren Artetxek Larraintzarren egindako bertso saioan



Ultzamako bertso eskolako hainbat ikasle Nafarroako eskolarteko finalean, Irurtzunen



Gongora mendian, Etulain eta Leazkue artean



Mikel Donea iritsi da Imotza (argazkian, Erason)



“Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer ikasia ematen digutenean”

Udaberrian pulunpatu gara, eguna
luzatu da, *bagoak* edo pagoak egun
batetik bertzera lehertu zaizkigu...
Mendietako xendetan lohia desa-
gertuz doa eta aspaldiko partez
oihanean barneratu gara. Baina,
kasu! Oraindik giroa frexko dago
eta gure bazterretan bada gune
uspel franko, eta heze: orduan, ko-
meni da **zamarra** eskura izatea. Bi
hitz horiez arituko gara gaurkoan:
'uspel' eta 'zamar'.

Lehen hitza aurkeztuko dizuet: 'uspel'. Bertze hizkera batzuetan 'ospel' erraten dute. Alde batetik, 'uspela' edo 'ospela' zera da: hotzak behatzetan, belarrietan edo oinetan eragin dezakeen handitua edo zauria. Hau da, gaztelaniazko

“sabañón”. Gure eskualdean horiei *sabayonak* edo *mandokoak* deritze, baina ‘uspelak’ deituz ere aixe ulertzen dugu.

Nolanahi gisa, Ultzamaldean eta oro har Nafarroan, 'uspel' hitzak bertze zentzu bat du: itzaltsua, iluna, laiotza. Gaztelaniaz, "paraje sombrío", itzalgunea, alegia. Eta hala bildu zuten, hain zuzen, ez aspaldi EHHako inkestagileek gu-rean:

Alkotz: úspelá

Suarbe: *uspél*

Berüete: *uspél*


lqoa: *uspél*

Etxaleku: 1. *úspelá*. 2. *ítzalá*

Nahiz eta EHHako mapan 'uspel' forma ageri den, Ultzamaldean 'uspel' aldaera entzunen dugu gehien, eta, tira, entzuteko aukerarik ez badugu, toponimoei begiratu baino ez dugu. Adibidez, Leazkuen *Uspel* dugu (ikus 3. irudia), bere horretan, baita Etulainen, Alkotzen, Ziaurritzen eta Beratsainen ere. Egozkuen *Artzekiuspel*, eta Gaskuen *Mendiuspel*. Azkenik, Beuntzan, *Uspeleko iturria* dugu. Ugaria, beraz, gure alderdian, eta leku-izen guziak bezala, arrunt deskriptiboa.

Hiztegietan, hala nola Elhuyar Hiztegian, 'ospel' hitza hartzen da forma neutrotako, eta 'uspel' aldaerari ñabardura bat eranstean diote,





Euskal Herri Hizkeren Atlasak gazt. “chaqueta”-rendako dakarrena

ohi bezala bigarren mailako balitz bezala. Zein ñabardura? Bada, *Ipar*. marka. Ipar Euskal Herrian baka-
rrik erabiltzen delakoan! Arestian
ikusi dugun bezala, Ultzamalde-
raino bederen ailegatzen da. Izan
ere, oroit gaitezen gure alderdiko
euskarak batez ere nafarreratik
edaten duela, edo edan izan due-
la orain artio behinik behin. Duela
gutxi arte oso antzekoak ziren Ba-
xenabarreko eta Nafarroa Garaiko
hizkerak, nafarrera, azken finean.

Hortaz, Garazitik Imotza 'ospel' aldaera dugu. Aldameneko Larraunen eta Leitzaan, aldiz, 'ospel' forma erabiltzen dute, eta ez da harritzekoa, Gipuzkoatik hurbilago daudelako eta Gipuzkoako hizkera aunitzetan 'ospel' izendatzen diote leku itzaltsuari. Baina, bitxiki, gure mugetatik ipar-ekialdera ere 'ospel' dugu Eugin eta Erroibarren, eta Baztanen 'mospel'. Bitxia, benetan, eskualde horietan 'ospel' forma gailendu izana, normalean Pirinioaldeko hizkerak elkarrengandik hurbilago daudelako, baina tira, hala da oraingoan.

Konpara ditzagun Nafarroako hainbat toponimo: *Iturriospel* dugu Artzin, *Malloko Ospela* Baraibarren eta *Koskarteko Ospela* Zilbetin. Bestalde, *Fuente de Uspel* dugu Orrion eta *Uspel* Elkanon. Denetarik, beraz, Nafarroan.

Apika, leku uspелaren antonimota-ko 'berokia' har daiteke. Ez du zer-
tan, egia erran; 'egutera' erratea
zuzenagoa litzateke. Tira, 'uspela'
itzalgunea dela erran dugu, eta
normalean halako tokiak hezeak
eta frexkoak izaten dira. 'Berokia',
ordea, kontrakoa da: bero edo goxo
dagoen leku bat. Haizerik gabeko
babeslekua, *haizeizkutua*. Bai, bai,
leku fisiko batez ari naiz, ez ne-
guan beztitzen den jantzia! Horri
'zamarra' deitu izan zaio mende
luzez, eta mantendu beharrekoa
litzateke, nahiz eta eskolan negu-
ko jauntzi horri 'berokia' deitu eta
barneraino sarrarazi diguten.

Beroki toponimoa dugu Etsainen, baita Zigandan eta Zarrantzen ere, *Berokiko Gaina* Latasa-Odietan... Eta, jakina, den-denek gordeleku bati egiten diote erreferentzia, ba-



Puntu gorria Leazkueko Uspel leku-izena da,
toki itzaltsua ziurrenik

besugne bati. Nafarroan barna ere hamaika adibide ditugu: *Aizetabero-ki* Espartza-Galarren, *Egoabero-ki* Zaren, *Iparberoki* Iturmendin, *Oianberoki* Erron, *Axariberoki* Iza-ban, *Suberoki* Eulaten, *Zokoberoki* Orotz-Betelun... Ezin deskriptiboa-goak, ezta?

Beztitzeko arroparendako, hots, gaztelaniazko “abrigo” hitzaren-
dako, aldiz, ‘zamarra’ aldarrikatu
nahi nuke gaurkoan: betitik era-
biltzen dena, eta Nafarroa osoan
gainera. Bestalde, gaztelaniazko
“chaqueta” izendatzeko, *txama-
rreta* dugu gurean (ikus 2. irudia):
Txámarretá óngi yaztekó bákarrik
(Beruete, EHHA). Errepara diezaio-
gun inguruari: zenbat etxek dute
Zamargiñenea izena? Edo zenba-
tek dute Zamargilea deitura? Ales-
besen (Villafrancan), esaterako,
minttegi eta saltoki bat dago, Erri-
beran, bai horixe!

Horrez gain, *Zamargiñeneko Borda* parrasta bat dugu Nafarroa: Beuntzan, Oskotzen, Errazkinen, Legasan... *Borda de Zamargin* dute Berribeitin, eta Intzan euskaraz *Zamargiñen Borda*, Añorben *Zamargina*, Enderitzen *Zamargain*, Gorzan *Zamargibelea*, Etxalarren *Zamargillenea*, Aldatzen *Zamarginaldapa*, Garaioan *Zamariturralde*a, Getze-Ibargoitin *Zamarzar*...

Gure ingurua hobeki ulertze-ko hainbat hitz bat ekarri ditugu, 'uspel', 'zamar' eta 'beroki': aurrerantzean jakinen dugu halako toki uspelak itzala dakarrela berekin, berokiak babesgunea, eta 'zamarra' eta *txamarreta* jantziak direla. Ari gara mantso-mantso bildumattoa osatzen, ezta hala? Hurrengoan Basaburuko leku-izen batetik abiatuz, ikasten segituko dugu. Ongi ibili!

Alazne Fdez de Munjain



Etxe izenak

eta gehiago (III)

Gaur Ilarregira jo dugu

Lau urte eginen ditu etxe izenez bigarren artikulua idatzi nuela. Urteak ura bezala pasatzen dira, ziztu bizian, eta hor uzten dugu pentsatua genuen egitekoa ez dakit noizkorako. Etxe izenez gehiago ere idatzi behar eta, beti gerorako uzten.

Azkenekoa Berueteko etxe izenez idatzi nuen, herria handia eta aukera franko ematen zidalako. Geroztik behin baino gehiagotan pentsatu izan dut: zein herri aukeratu hurrengorako? Hiru urte baino gehiago ihesian joan dira. Eta hala, gaur, telefonoz aritu naiz bi ilarregiarrekin. Lehenarekin ohartu naiz etxe izenez, bizi izan diren familiez eta horrela, makets samar zebilela. Bigarrena, berriz, askoz ere jantziago, hau eta hura, hari eta honi... begia emana. Dena dela, komenigarria litzateke, gutxienez, geren herriko etxe izenak jakitea. Eta erabiltzea!



Ilarregiko karrika ▲

Eta hala diot ene buruari, zergatik ez idatzi Ilarregi eta bere anaia bizkia den Suarbez? Gehiago oraindik inon aurkitu ez ditudan hainbertze

izen eufoniko izanik!!!

Eta bertzerik gabe, hona egin ditudan bi lauki herri horietako etxe izenez:

ILARREGI (Ahoz, Ilarregi erran izan dugu beti)

Etxe izenak 1727. urteko Erroldan (Auzo zirenak)	Idatziz erabiltzen genituen bezala (1) 1935	Jabeari deitu izan zaion bezala, ahaz
1. Urruticoechea	Urrutikoetxea edo Urtikotxea	Urtitx(e) Oskotzen bezala? Urruti?
2. Urrecarena	Urrikenea	Urrikene
3. Urdinchorena	Urdintxonea	Urdintxo
4. Jaunsarasena	Joantsonea (Yoantsonea)	Yoantso
5. Sansolena	Santsolonea	Santsolone
6. Arozenea	Arotzenea	Arotzene (Aotxene)
7. Miguelchonea	Miltxonea	Miltxone
8. Remonena	Erramonea	Erramone
9. Goycoechea	Kokotxea (Kokotxa)	Kokotx
10. Juanaenea (sic)	Joanea (Yoanea)	Yoane
11. Iriartea	Iriartea	Iriarte

Oharra: Ahoz, Urrikénia, Miltxónia... horrela ibiltzen ditugu, -ea bukaera horiek -ia egiten ditugu (2)



1727an hamaika etxe dira auzo zirenak (bezindadea zutenak) Edo hamabi ote? Ondoren badakartza bertze etxe batzuk ere.

Urrikeneak bazuen maisterra. **Ar-
tegia** zen etxe horren izena.

Kokotxeak bazuen bertze etxe bat, **Etxeberria** zeritzona. Hau hala ere auzo izanen zen, 12. auzo zena, alegia.

Arotzeneak bazuen bere etxean maisterra.

Iriarteak, gaineko aldetik bazuen maisterretxe bat. Eta azpiko aldean bertze itsatsi bat, bere mais-terrarekin.

Eta azkenik, zubietar batek bazuen etxe bat, **Borda** izenarekin, bertzerik gabe, herritik kanpo izanen zena. Zein ote? Non ote zegoen? Garai hartan hau izanen zen lehen eta azken borda Ilarregin; ez zen gehiago. Geroztik eginak dira borda guziak.

Ondoren, bertze hiru etxe hauek:

Cofradia (3) de Ilarregui, Elzaburu, Juarbe y Orokieta	Obraria	Joan den mendearen erdialdera saldu zuen apezak
Apezetxea	Apezetxea	Apeza: Fernando Juarbe
Errota	Errota	Orokietako Antsonekoa zen

Kofradia edo obraria bazen garai hartan eta geroago ere bai, lau herriena. Kontuan har hor ez dela Erbiti aipatzen. Obraria honetan emakume alargun bat eta bi nekazahar bizi ziren. Aipatu lau herri horietako kofradeek beren bilerak, otorduak, errezoak eta abar egitzen zituzten bertan. Obraria honen historia oraingoz behintzat bazter utzi beharko dugu.

Apezetxean Fernando Juarbe bizi zen, Ilarregiko eta Suarbeko apezak. Apez hau, ustez behintzat, Suarbeko **Etxebertzeko** semea zen, eskirauen etxekoa.

Errotak, 1727an, jabe bakarra zuen: Orokietako **Antsoneko** Pedro Leon Lasaga. Errotari Martin

Orokieta ageri zaigu. Aipatu behar errotarietan askotan agertzen dela Orokieta deitura, Mariezkurrena bezala.

Dirudienez, **Antsonek** errota saldu egin zuen edo bertze bat egin zuten, oraindik zutik dagoena. Gartzaron, Orokieta-Erbiti, Ilarregi eta Suarbeko bezino edo auzoena izan da.

Eta honela zen errotako jabeen kopurua berriki saldu zen artio: Gartzarongo 11, Orokieta-Erbitiko 3, Ilarregiko 11 eta Suarbeko 5, denak auzo.

Etxe izen **eufonikoak** ageri zaizkigu Ilarregin:

Yoantsonea. Pentsa, Jauntsarats deituratik zeinen izen ederra!

Santsolonea. Nondik dator izen hau? Sansol herriaren izenetik dirudienez. Sansol deitura zuen batengandik edo Sansoldik etorria zen batengatik? Aspaldi xamarreko izanen da, 1700dik hona Sansol deiturarik ez dugu ikusi behintzat etxe honetan.

Kokotxea (Kokotxa) Goikoetxetik dator. Hemen hasierako **G** hori hots gogorra bihurtu dugu, **K**. Hitz askorekin egin izan da hori, baina **Goikoetxea** dugu gure alderdi guzian, Auzako eta Ilarregiko hauek kenduta.

Nik uste hemen ageri diren bertze etxe izenez ez dugula askoz gehiago erran beharrik. Hor dugu **Urraka** bat, izen propioa, **Urdintxo** izengoiti bat, **Miltxonea** bat, Etxaleku edo lhabenen bezala, Migel ttipitik datorrena eta **Joanea**,



Ilarregin Urrikenea. Arkudun hiru ate duen etxea. Ba ote da bertzerik gure alderdian?



emakumeren batek egina. **Iriar-tea**, aldiz, herri erdian dagoelako da (**Irigoién**, **Iriarte** eta **Iribarren**, herri batean izen horietako etxea honela kokatu genezake, goiti, tar-tean edo behean dagoenean).

Urrutikoetxea jende gehienaren ustearen kontra, ez du erran nahi urrutiko dagoenik. Bertze kontu bat dago hor. **Urrutikoetxe** gehiago ere badira gure alderdian eta bat bakarra ere ez dago herritik urrun, herrian bertan baitaude. Bertze noizbait idatziko dugu honetaz.



Suarbeko Sandronea etxe ederra ▲

Suarbe (Suarbe galtzen ari zen eta gazteek Juarbe esaten zuten orain 40 urte)

Etxe izenak 1727. urteko Erroldan	Idatziz erabiltzen genituen bezala (1) 1935	Jabeari deitu izan zaion bezala
Palacio	Etxebertzea edo Jauregia	Etxebertz edo Etxebertze?
Garaycoechea	Karakoetxea	Karakotx
Sanduarena	Sandronea	Sandro
Polloreña	Pollonea	Pollone
Alorechea	Alortxa	?
Abacial y avita seglar	Apezetxea	Apezik ez da ageri. Bertze familia bat bizi zen
Echeverria (Etxebertzekoena)	Bizkarrekoetxea ote da?	Etxeberria etxeko jabea, Etxeberri da

Hemen ere baditugu bi etxe-izen eufoniko:

Etxebertzea. Suarbeko eskirauena izana. Juarbe y Echeverz firmatzen zuen eskirau horietako batek behintzat.

Sandronea. Sanduru izenetik datorrena da hau. Sanduru edo Sandu zen izena. Imotzen bi ziren, lehena Muskitzen, Santonea esaten dioguna Sandu(ru) izenetik datorrena. Bertzea Oskotzen, orain etxe hori desagertua dagoen arren. Nik uste ez dela inor oroitzen, ahoz behin-

tzat nik ez diot inori entzun. Imotz aldean hitzak jateko ohitura gehiago dugu Ultzaman baino, eta Sanduru beharrean Sandu esaten zen joan den aspaldian ikusten denez, eta hortik Santonea eta ez Sandronea Suarben bezala.

Etxeberria ere aurkitzen dugu Suarben, Etxebertzekoena, baina ez dut uste auzo zenik. Bixkarrekoa deitzen duten hori da noski.



Txurdan

(1) Zutabe hau 1935eko Erroldakoa izan nahi litzateke. Izenak: idatzi horrela idatzten ditugu, baina egia osoa esateko **-ea** bukaera hori Euskal Herriko toki gehienetan Arotzen**IA**, Yuantson**IA**, Sandron**IA** egiten dugu. Ultzaman ere bai, jakina!

(2) Eta azentua, Basaburuan eta Imotzen ez bezala egiten dute, honela egiten baitute Ultzama, Odieta, Lantz, Anue eta Atetzen (Eta Imotzen, Muskitzen) Arotzènià, Urrikènià, azentu printzipala azkenaurreko silaban. Basaburua eta Imotzen, berriz, azentu printzipala azkena izaten da: Arotzènià, Migelènià.

(3) Cofradia, euskaraz Obraria erran izan zaio beti; dokumentu zaharretan ere hala ageri da.

Hiztegia

Auzo: bezindadea zutenak edo **auzo** zirenak, etxe eta lurren jabeak izateaz gain, bazituzten deretxo batzuk gainerakoak ez zituztenak. Bertze aldi batean kontatu beharko honetaz zerbait.

Maketsa: desafilado, defectuoso (hemen ere erabiltzen da hitz hitz hau).

Begia emana: gauzaren bat aztertua duela edo.

Eufonikoa: hotsez atsegina den hitza.

Obraria (cofradia): hiletetako gastuak elkarren laguntzaz egiteko elkarte, eta mezak eta errezoak hilaren alde egiten zituzten obraria hauetan. Otorduren bat ere bai.

Zutabea: pilarea, columna

Barrena: behekoa erran nahi du. Alkotzen hor dugu, esate baterako, **Oianbarrena erreka**, oihanetik datorrena, **beheitiko oihaneko erreka**, alegia.



Apirilean ere, Amezti bete edukiz

Jai egunak eta oporrak ere izan ditugu azken hilabetean, baina gure webgunea elikatzen jarraitu dugu, jakina. Irratiko edukiak igo ditugu, agenda eguneratu dugu eta berriak ere izan dira gurean. Ikusi eta entzun nahi badituzue, hartu txalupa eta nabigatu!

Oihanzabal eskolako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak protagonista izan dira. Izan ere, Diario de Noticias egunkariaren Reciclon lehiaketan finalistak izan ziren. Klaseko maskota bat egin behar zuten, material birtziklatuekin eta haien DJ Oilozabal kategoriako lehenengo bosten artean gelditu zen. Osotara hiru maila zeuden eta 169 ikastetxe aurkeztu ziren. Finalisten artean irabazlea herriararren bozken bidez aukeratu behar zen apirilaren 9a bitartean eta gure ikasleak hirugarrenak gelditu ziren azkenean, Iruñeko hainbat eskola handiren kontra lehiatu ondoren. Zaila zuten, beraz, eta gauza handia izan zen hirugarrenen postu hori, Zorionak!

Guk elkarrizketa egin genien eta amezti.eus webgunean aurkituko duzue entzungai.

DJ Oilozabal,
Oihanzabal eskolako
ikasleen maskota



Pulunpe honetan idatziz ere aurkituko duzue, baina eskualdeko Euskaraldiko hamaikarekin egon ginen, talde anitza osatu dute eta hemen duzue kontatu zigutena.

Euskaraldiko
hamaikari egindako
elkarrizketa entzuteko



Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era izanen da, oraindik baduzue izena emateko aukera Euskaraldiko webgunean. Eta, adi, eskualdean hainbat ekimen antolatu baitira aurreko egunetan, motorrak berotzeko asmoarekin, ikusi agendan!



Gure jolasa atalean hitz berri bat ezagutu dugu

Esan Erran irratian elkarrizketak bakarrik ez, kolaborazioak ere ditugula badakizue. Adibidez, Alazne Fernandez de Muniain erasoarren Gure jolasa. Hilabete honetan Uspel hitza ezagutu dugu berari esker.

Gure jolasa



Egun Ero magazinaz gain, programa gehiago ditugu Esan Erran irratian, adibidez, Tipule Menierek egiten digun Broma Gutxi. Eta saio honen atal berri gehiago ere izan ditugu. Hardcore eta punk biniloak zuzenean jartzen dizkigu bi astean behin. Hemen entzun ditzakezue orain arteko saio guztiak.

Broma Gutxi



Amezti gainera...

Pulunpe guztiak PDF-an aurkituko dituzue! Batzutan aste batzuk itxaron behar da etxean jaso arte. Argitaratu berri webgunean zintzilikatzen ditugu, ordea, beraz, irrikitan irakurtzeko daudenak Amezti aurkituko dute.

Agenda: eskualdeko hitzordurik ez galtzeko, ikusi gure agenda.



Efe-z hasten diren hitzak

F hizkia euskarar arrotza omen da. Hala esaten zuten garai batean. Eta hala izanen da aurki, **efe**-z hasten diren hitz gutxi baitugu. Dena dela, guri, ez asko, baina hitz parrasta bat behintzat erakutsi ziguten.

Ia hizketan hasi orduko harri botatzen ere ikasi genuen, lehenbizi motz, indarrrik gabe, baina urteak bete ahala, besagainez lehenik. Geroago ikasi genituen besazpiz, koxkortutakoan, eta **furrunden** botatzen ere bai. Edo ugaldetako putzuen hertzetatik, harri xabal arinak, azpi-azpitik indarrez bota ur azalean irrista egin eta jauzika, txipi-txapa, guregandik urruntzen ikusten genituen gure "apustu" antzekoetan ea nork egin arazten zion bote gehiago eta nork urrunago. Zenbat bote egin arazten genien? Batzuetan ezin konta ahala ia!

Gure haurtzaroko neguetan elurra maiz izaten zen eta zerura begira, erdi txoratu artio gelditzen ginen elur **fitxak** nola zetozen, mantso-mantso lurrera. Elur **fitxen** artean gure ikusmena lausotzen zitzagun, zoraturik akabatu artio.

Eta uda bero kiskalgarrietan, gu oraindik muttikoak, belar ebakitzean edo idortu ondoren belar biltzean hor izaten ziren **filutsak** airean, ikusteko hobeak zirenak larrru izerdituan itsatsita gelditzeko baino.

Mutikotan, neskato **firin-faran** zebilenen batez zerbait esan beharra ere izaten genuen, mingaina miztoa bezala zorrozten hasiak ordurako mutiko lotsagabeok! Lotsagabeok? Ez nuke hala esanen, ia urte pare bat zaharxeagoekin kontuz ibiltzen baikin. Oso kontuz gainera! Atera kontuak! Lotsagabeak gure artean, bai, baina errespetuz gainerakoekin.

Mutiletan atso **farfallen** bat ere ezagutu genuen; baten bat diot, jende langilea, serioa, ona... eta nahi duzuna baitzen garai haietan. Eta gure hurbiletik pasatzean denek bazuten hitzen bat, galderen bat... herriko mutikoak ginen! Herriko jende inportantea ginen. Hala sentitzen genuen geren burua, eta hala zela pentsatu izan dut beti (Jende inportantea zen orduan, zahar eta gazte, bakarka edo taldeka izan, inportantea!).

Eta umeen tenorera itzulirik, **furruسته** eta purruسته konturik ez zitzagun zil. Errespetua eta txintxo izatea eskatzen zitzagun. Eta zer nahi duzu esatea? Edukazio on bat eman ziguten... jendea errespetatzen, lanean **fierrak** izaten, arduraz jokatzen...

Edukazio on bat eman ziguten, zaplatakoren bat gora-behera. Baitere merezi gabeko zaplatakoren bat edo beste, eta auzoko Feliperen belarri tiraldi krudelak kasu bakanen batean. Edo agian gehixeko ere bai, baina ez gintuzten traumatatu. Oraingo hurrak horrelako gauzeekin traumatatu egiten omen dira. Gu traumatatu? Ez gizona, ez, orduko

haurrak bideak eta, behar zenean, xendak ibiltzen bagenekien! Ezkutu lekuren bat ere bai! Beharko!!!!

Naparroako mendialdean ardo **frexkoa** izaten zen nasaiki, gezurra badirudi ere. Naparroako? **Nafarroako** esan beharko dugu, Baztango eta beste hainbat tokitako erara. Gainera gaur **efe** hizkiarekin etorri gara, hitz **eufoniko** politekin. Eta **Nafarroa** izena ere euponikoa da.

Ardo frexkoa dut nik estimatzen, bai horixe!



Txurdan

Hiztegia


Eufonikoa: hitz edo esaldi, soinu atseginekoa.

Aurki: probablemente. Zoritxarrez, adiera hau ez dute eskolatan erakusten.

Zil: libre (hemen hitz arrunta zen, orain entzuten ez dudana).

Nasaiki: abundantemente.





Efe-z hasten diren hitzak

Furrunde, furrunda: altura galdu gabe aurrera egiten duen harriari esaten zaio, ematen zaion indarra eta efektuaren bitartez. Tentsionatua bezala joaten da.

Beste adiera batzuk ere baditu, adibidez, furrunden biali nin eskale alu hore! Furrunden botako nittizkek ume puta hoiek! Zitzu bizian, alegia, baina gogor xamar, esan nahi du.

Fitxa: maluta (gurean ez zen ezaguna maluta). Fitxa esaten dugu; fitsa ote da?

Filutse-filutsa: lorea pasa ondoren zenbait landareetatik askatzen diren hondakinak; eta airean erdi zintzilika mantentzen direnak. Goatze azpitan ere halako borobil batzuk sortzen dira eta horiek eta filutsek dira. Goatzepeko hauek zertatik sortzen ote dira? Ez dut aztertu.

Firin-faran: Arinkeriaz han eta hemen dabilen pertsona (hitz onomatopeikoa).

Farfalle-farfalla: hitz eta pitz ibiltzen den pertsona, fundamendu askorik gabe, askotan erdi trakeskerian.

Farfalle gehiagotan izaten zen emakumea, baina mutikoak ere bai.

Furruste (furrusta edo purrusta): haserre egin. Edo haur bat motiborik gabe kopetilun jartzen denean, haserre bizian: hori ere furrustaka ari dela esanen genuke.

Fierra: hitzeko gizona eta lanari lotua dena. Aldi berean txukuna ere badena. Guretako **jende fierra**, beste modu batean esateko, kategoria handiko jendea da.

Frexkoa: ardo frexkoa dugu ona urdaila ez otintzeko (mintzeko).

Eufonikoa eta eufemistikoa ez nahasi mesedez, hitz oso-oso diferenteak dira.

Zorionak
Zorionak!

Ane, halpar hizkura.
Zorionak!



Lizasohe Ibaik 9 urte bete
zituén apirilaren 10ean.
Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Arrakastak jarraitzen du Basaburuko BTT eskolaren bigarren urtean

Joan zen urteko arrakastaren ondoren, bigarren ikasturtez antolatu da BTT eskola Basaburuan. Orain, maiatzean, amaituko da udaberriko ikastaroa. Izan ere, urtean bitan egiten dute, udaberrian eta udazkenean, zortzi saio bakoitzean, gutxi gorabehera. Udazkenekoan gehiago apuntatzen badira ere (aurrekoan 23 zeuden, hiru taldetan banatuta), orain ere talde polita osatzen dute: 14k eman dute izena eta bi talde egin dituzte.

Sei eta hamabi urte bitartekoak dira eta adinaren arabera banatu dituzte bi taldetan. Gehienak Basaburukoak dira eta haiekin batera Ultzamako batzuk ere badira; eskualdetik kanpo, Lekunberritik, adibidez, etortzen dira beste batzuk, eta, aurten, urrutia egiten ere, Donostiako ikasle bat ere baitute. Joseba Navarro, monitorea, bat da: "Han zazpi urtetik gorakoendako bakarrik eskaintzen dira". Inguruan ez dago haurrendako BTT ikasteko aukerarik, eta, monitorea esan digutenez, haurrei asko gustatzen zaie. Ricardo Ariztegi da horietako bat: "Hoberena giroa da, oso-oso gustura etortzen dira, eta garrantzitsuena haurrek disfrutatzea da".

Martxoaren 13an hasi ziren eta ostegunero 17:30ean biltzen dira Aizarotzen, eguraldiak uzten badie; bestela, Jauntsarasko kiroldegian entrenatzen dute. Klasearen hasieran teoria pixka bat edo egingen dutena jasotzen dute irakasleengandik, eta, ondoren, gehien atsegin dutena: oihanera doaz praktikatzera. Haiei irakasteko lau herritar daude boluntario, Joseba Navarroarekin eta Ricardo Ariztegiarekin batera, Alejandro Mingot eta sustatzailea izan zen Martin Perurena.

Urtean bi ikastaro

Aipatu bezala, bi txanda daude ikasturtean BTT eskolan aritzeko, orain-

“

**Joseba Navarro,
monitorea:**

**Mendia zaindu
behar dela,
denondako eta
guztiok gozatzeko
dela ere irakatsi
nahi diegu**

”

go udaberrikoa eta udazkenekoa. Azkenak du arrakasta handiagoa Navarrok azaldu digunez: "Gehienetan hezetasun gutxiago izaten da, lurra lehorrago dago eta errazago ibili daiteke. Gainera, eskolaz kan-

pokoak hasi baino pixka bat lehen-
txeago hasi ohi gara, eta aukera izaten dute haiekin uztartzeko. Bestela futbolak indarra handia du, musikan ere ibiltzen direnak daude...". Baina eskolak izan duen arrakastarekin kontent agertzen da. Joan zen urtean pare bat neska ere aritu ziren, baina neskei iristea zailagoa egiten zaie: "Neskak apuntatzeko aukera ematen dugu, jakina, eta oso gustura gainera".

Aipatu bezala, eguraldia garrantzitsua izaten da disfrutatzeke, eta, zentzu horretan udazkeneko ikastaroan hobeto egoten da lurra, lehorragoa. Euria egiten duenean, dena den, ez dira geldirik egoten. Jauntsarasko polikiroldegian teknika ikasten aritzen dira horrelakoetan. Eta, hala ere, Manu Alvarezek sortutako Basaburua MTB taldearen lanari esker, bideak ere geroz eta



Joseba Navarro monitorea hainbat ikaslerekin



“

**Ricardo Ariztegi,
monitorea:**

**Hoberena giroa da,
oso-oso gustura
etortzen dira, eta
garrantzitsuena
haurrek
disfrutatzea da**

”



Bi ikasle bide baten seinale aurrean. Kolore ezberdinak dituzte zailtasunaren arabera

hobeki daude: “Lan asko egin dute xenda horietan. Adibidez, azkeneko klasean lurra bustia zegoen, baina, orain, egin duten lan horren ondorioz, nahiz eta lurra hezea egon, ez da putzurik izaten eta hori ona da”.

Gustukoena, maldan behera

Klaseak adinaren arabera antolatzen dira eta, bakoitzaren erraztasunaren arabera, Joseba Navarrok

azaldu digun bezala: “Zenbat ibiltzen diren ikusten dugu. Asko ibiltzen direnak ez aspertzeko eta besteen esperoan egon behar ez izateko, bi talde egin ditugu”. Lehenengo luzapenak eta berotzeko ariketak egiten dituzte eta ondoren hasten dira teknika ariketekin. Garrantzitsuenetakoak dira oreka lantzekoak: “Bizikleta gainean ibiltzeko oso ga-

rrantzitsua da. Eta gero posturak zuzentzea, bizio txarrak hartzen ditugulako. Adibidez, bizikleta gainean zoazenean, pedalei ematen diezu aurrera egiteko, baina malda jaisteko bi hankak parean jarri behar dira bizikletari ongi eusteko eta lurrean kokka bat agertzen denean oinarekin ez jotzeko. Hori franko lantzen dugu”.

Hain zuzen ere, xendetan behera ibiltzea gustatzen zaie gehien: “Bakoitzak bere kolorea du, xenda bakoitzari zailtasunaren arabera ematen zaion kolorea. Horiek egiten joatea da gehien atsegin dutena”. Beldurrik ba ote den galdetu diogu Joseba Navarriori: “Beldurra baino gehiago urduritasuna izaten dute, gauzak gaintutuko ote duten edo ez urduri, nola ibiliko diren pentsatzen, hori izaten da gehiago. Baina beldurrik ez. Hasieran zer maila duten ikusten dugu eta suabe-suabe hasten gara”.

Mendia zaintzea

Teknika ikastea bezain inportantea da mendia zaintzea, eta hori ere transmititzen zaie BTT eskolan. Joseba Navarro: “Bai, helburu hori dugu. Mendia zaindu behar dela eta mendiaz gozatu behar dela transmititu nahi dugu, mendia denondako eta guztiok gozatzeko dela, eta horretarako zaindu behar dela. Baita udaberrian edo udazkenean mendiak dituen berezitasunak irakatsi ere, udazkena ondoren hostoak erortzen direla, besteak beste”.

Gainera, Navarrok, mendi bizikletan aritzearen beste onura batzuk azaldu dizkigu: “Oso kirol sana eta polita da. Gu txikiak ginenean bizikletan ibiltzen ginen. Etxetik atera eta lagunengana joateko bizikleta hartzen genuen aurreneko gauza. Eta orain ez dira hainbeste ibiltzen. Baloia eta bestelakoak hartzen dituzte edo, okerrago, kontsolak”.

Basaburuko BTTan lehenengo aldiz, umeak

Maiatzaren 31n izanen da aurten BTTa eta, dagoeneko, izena emateko epea zabalik da. Baina aurtengo nobedaderik handienetakoa da txikiendako BTTa. Hain zuzen ere eskolatik sortu zen ideia, eta bertako ikasleek izena eman dute, baina beste edozein umek ere izena emateko aukera zabalik da. Joseba Navarro eskolako monitorea animatzen ditu: “Erronka polita izan daiteke eta nahiko genuke beste batzuk ere nahiz eta eskolan ez egon apuntatzeko aukera aprobetxatzea. Egun polit bat pasatzeko aukera izanen da”.

Handien kasuan bezala bi luzera izanen dira: Luzeak 10 kilometro eta 150 metro desnibela; eta motzak, 4 kilometro eta 60 metro desnibela izanen dituzte. Izena emateko aukera, BTT nagusian bezala, MTB Basaburua taldearen weborrian.





Gelbentzuko Anne Oiartzunek giltzurruneko eta bihotzeko pazienteak lagunduko dituen sistema garatu du

Gelbentzuko Anne Oiartzun Domeñok giltzurrun eta bihotzeko gaitzak dituzten pazienteak laguntzeko adimen artifizialeko sistema bat garatu du Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ingeniaritza Biomedikoan graduatua, NUPen osatu zuen masterra, eta, ondoren Nafarroako Gobernuaren doktoretza beka bat jaso. Tesian hiru urtez garatutako sistema digitalaren bidez, giltzurrunaren eta miokardioaren odol jarioa neurtu daiteke, eta, horrela, besteak beste, giltzurrun-transplante izan dutenak lagunduko ditu.



“ Giltzurrun berria jaso duten pazienteetan bereziki oso garrantzitsua da giltzurrunak jasotzen duen odol jarioa behar bezala kontrolatzea ”

ASL teknika da, *Arterial Spin Labeling*, eta odietar “zigilua” du, Gelbentzuko **Etxekobordako** Anne Oiartzun Domeñok (1997) garatu baitu. Laburbilduz, erresonantzia magnetiko bidez eginiko irudiak aztertzen ditu, adimen artifiziala erabiliz. Giltzurruneko eta bihotzeko odol jarioa neurtzeko balio du eta giltzurrun-transplantea jaso duten pazienteak eta miokardio arazoak dituztenak lagundu ditzake. Oiartzunek berak azaldu digu.

Giltzurrunera eta bihotzera doan odol jarioa neurtzen duen sistema bat garatu duzu. Zertarako?

Nire lanak erresonantzia magnetiko-ko eginiko irudiak ditu ardatz. Baina ez ohiko erresonantzia magnetiko-ko irudi konbentzionalak, baizik eta odol jarioa aztertzen duten irudiak. Giltzurrun berria jaso duten pazienteetan bereziki oso garrantzitsua da giltzurrunak jasotzen duen odol jarioa behar bezala kontrolatzea. Horretarako, normalean, inbaditzaileak diren metodoak erabiltzen dira: analisiak eta biopsiak, adibidez. Metodo horiek ez dira seguruak transplantea jaso dutenentzako. Horregatik erabili dugu irudi medikoa, erresonantzia magnetikoko irudiak. Hauek, gainera, ez dute erradiazioarik eragiten.

Adimen artifiziala da. Nola funtzionatzen du?

Medikuarendako edo klinikoarendako oso zaila da irudi hauek eskuz aztertzea. Ordu asko izanen lirateke irudi kopurua handia delako eta pazienteak asko direlako. Izan ere, paziente bakoitzari irudi asko atera behar zaizkio, ehun baino gehiago; orduan, guztira, milaka irudi dira. Adimen artifiziala probestuz eta eskaintzen dizkigun tresnak erabiliz, irudi hauek modu digitalean aztertzea zen helburua. Horrela, medikuari edo klinikoari laguntzen diogu, diagnostikoan edo prebentzio fasean.



Nola garatu duzu?

Bi fasetan egin dugu. Giltzurrunean kortex deituriko ehun bat dago eta hor kalkulatzeko da odol jarria. Orain arte medikuak eskuz egin behar zuen, eta nire helburua erre-minta automatiko bat sortzea izan zen, hori eskuz egitea saihesteko. Miokardioaren kasuan, berdina. Hori lehenengo fase batean egin genuen. Baina pazienteak, normalean, adinekoak dira, eta erresonantzia magnetikoz irudiak eskuratzeko prozesuak ordu bete baino gehiago irauten du; zaila egiten zaie denbora horretan guztian geldirik egotea. Horregatik, irudiak mugituz ateratzen dira normalean. Bigarren fase batean, irudien mugimendua zuzentzeko erabili genuen erre-minta digitala. Horiek izanen lirateke bi fase orokorrak. Ondoren, emaitzekin odol jarria automatikoki kalkulatzeko lortu genuen. Formula batzuei jarraituz lortu genituen kalkulu horiek. Zonaldea kokatuta eta mugimenduaren zuzenketa eginda, prozesu guztia automatizatzeke aukera izan genuen.

Eta noiz izan zenuen garbi hori zela landu nahi zenuena eta zergatik?

Unibertsitate Publikoan masterra egin nuenean irudi eta seinale medikuen prozesaketan espezializatu nintzen. *TFMa* egin nuenean (Master Amaierako Lana) Donostiako Vicomtech zentroan, antzekoa zen proiektu bat aurkeztu zidaten. Hor *TAC* irudiekin (Euskaraz: Ordenagailu bidezko Tomografia Axiala, OTA, edo Eskanerra) aritu ginen lanean, aneurismak detektatzeko helburua genuen, eta asko gustatu zitzaidan. Masterrean harremana zuen ikasgai bat nuen, eta Master Amaierako lanean ere interesa sortu zitzaidan. Ondoren, proiektu honetan sartzeko proposatu zidaten,

“**Ibilbide guztia asko gustatu zait, bai arlo klinikotik bai arlo teknologikotik**”

eta ibilbide guztia asko gustatu zait, bai arlo klinikotik bai arlo teknologikotik.

Nafarroatik kanpo ere aritu zara, ezta? Non eta zer egin duzu?

laz, Alemanian egon nintzen hiru hilabetez, Heidelbergeko Unibertsitateko proiektu batean. Bertan erresonantzia magnetikoen laborategi indartsua dute, eta irudi sintetikoak sortzen aritu nintzen gure modeloak baieztatzeko. Kongresuetan ere egon gara lanak aurkezten eta bestelako foroetan eta unibertsitateetan.

Eta, orain, Anne, zein da hurrengo pausua? Hau da, zuk asmatutako sistema hori erabiltzen hasiko da edo oraindik pausu batzuk eman behar dira aurretik?

Prozesua nahiko konplexua da. Orain giltzurrunen kortexa aztertzeko aplikazioa erabiltzen ari dira baina araudi batzuk jarraitu behar ditu erabilera ongi sustatzeko. Dena den erabiltzen ari dira, eta nik uste dut modeloak hobetuko dituztela eta zehaztasuna handitu.

Eta, zuk, zer egingo duzu orain doktoretza amaitu duzula? Baduzu etorkizunerako helburu nagusirik edo ikertu nahi duzun hurrengo arlorik?

Duela hilabete bat enpresa batean hasi nintzen, medikuntzatik pixka bat aldentuta, robotika enpresa bat baita. Adimen artifiziala erabiltzen duten prozesu batzuetan sartzen ari dira eta beste gauza batzuk probatzen.

Zergatik ikasi zenuen ingeniari-tza biomedikoa? Zaila izan al da?

Mondragon Unibertsitatean ikasi nuen. Urte gogorrak izan ziren alde klinikoa (biologia eta horrelakoak) eta ingeniari-tzako arloak dituelako. Biak baturik batzuetan nahiko gogorra izan zen. Gero masterra egin nuen, prozesaketan espezializatzeke, eta hor programazioan eta horrelako arloetan sartu nintzen betidanik gustatu izan zaidalako. Tesian, ondoren, adimen artifizialaren munduan sartu nintzen gai hori ez genuelako landu ez graduan ez masterrean.

Txikitatik zenekien zer ikasi?

Ez. Hasieran Fisika asko gustatzen zitzaidan eta matematika ere bai. Baina biologia eta horrelakoak ere gustukoak nituen eta uste nuen Fisika edo Matematika soilik ikasten banituen horiek alde batera utzi beharko nituela. Ez dakit noiz, bat-batean, ingeniari-tza biomedikoa agertu zen eta, biak uztartzen zituenek, hura aukeratu nuen.

Orain prentsan eta egunkarietan atera zara. Herrikoek zerbait esan al dizute edo zoriondu zaituzte?

Bai, bai (irriak). Gainera, (nire lana) ulertzeko modu errazago batean azaltzen denez jendeak ulertu du. Normalean, galdetzen didatenean, dena oso teknikoa denez... orain gai honetara gerturatu dira, eta, bai, zoriondu naute eta horrek oso pozik jartzen nau. Herria nire lekua da eta ahal dudan bezain beste bisitatzen dut.



Cholita voladora marciana

Patxi Irurzun gure liburuzainak argitaratu duen azken "martzianada"

Iruñea-Volkswagen etorkizuneko hiri batean gertatuko den historia da **Cholita voladora marciana** Patxi Irurzunen azken eleberria. Aurretik hurbildu den arren, zientzia fikziozko bere lehenengoa da, eta generoak eskatzen duen bezala berezitasun asko ditu. Tartean, hizkuntza inklusiboan idatzi duela, hau da, gaztelerazkoa izan arren, genero bereizketarik gabe. Eta, Simonides Murtxanteko ilustratzaileak, gainera, irudiak jarri dizkio.

Pepitas de calabaza argitaletxe independente entzutetsuarekin atera du eta aurkezpen berezia egin zuen Iruñeko Elkar liburutegian. Peruko folklore talde bateko cholitaz jantzitako bi emakumeren aurrekua-rekin. Eleberriaren protagonista, Samy, Iruñea-Volkswagen hiriko Bolivia Txikia auzoan bizi da, 2085ean. Patxi Irurzunek berak kontatu dizkigu beste xehetasunak.

Cholita hegalaria martetarra, izenak eleberria berezia izanen dela iradokitzen du...

Cholita esaten zaie Bolivia eta Peru bezalako herrialdeetako klase apaleko emakume indigenei, beren jantzi tradizionalak, kapelak, txiri-

“ Umorearen eta zientzia-fikzioaren itxurapean eskuin muturraren gorakada, kapitalismo basatia, gentrifikazioa edo indarkeria matxista jorratzen da ”

kordak, gonak eta abar janzten baitutuzte. Eta txolita hegalaria borroka librean aritzen direnak dira, janzkera horrekin borrokatzen direnak eta ringeko soketatik bota eta hegan egiten dutenak (hortik dator hegalariaena)... Nire protagonista cholita hegalaria horietako bat da, etorkizuneko Iruñea batean bizi den euskoboliviarr gazte bat, non gizakiak estralurtarrek bizi diren. Izan ere, bera ere neurri batean estralurtarra da, bere aita ratikuliniarra bat baita. Hau da, mestiza da. Hortik dator titulu martetar hau.

Eta, oker ez banago, Cholita Voladora Marciana ipuin batetik abiatu zen...

Bai, duela urte batzuk, Claudio Ferrufino-Coqueugniot idazle boliviarrak ipuin bat eskatu zidan atzerriko egileek parte hartuko genuen antologia batean sartzeko. Idazle boliviarrak *Dios nunca reza* izeneko nire liburu bat irakurri eta asko gustatu zitzaion, horregatik eskatu zidan. Boliviari buruzko gure ikuspegia emateko eskatzen zigan, baina nik ez nuen Bolivia ezagutzen. Berak esan zidan berdin zitzaiola, zerbait asmatzeko. Eta hori egin nuen, herrialdea kataklismo ekologiko baten ondorioz desagertu ondoren, boliviarrak mundu osoan zehar sakabanatu ziren etorkizun bat irudikatu nuen. Horrela imajinatu nuen Bolivia-Txikia, Boliviako auzo bat Iruñean, non herrialde hari buruz ezagutzen nituen topiko batzuk





irauli nituen. Antologia hura ez zen inoiz argitaratu, baina niri asko gustatzen zitzaidan sortu nuen mundu futurista hura.

Simonides Murtxanteko ilustratzaileak irudiak jarri dizkio. Nola sortu zen elkarlana?

Aspalditik izan naiz haren jarraitzaile, eta berak nire prentsako kolaborazioak irakurtzen ditu. Gainera, elkarrekin zerbait egina genuen, ipuin ilustratu bat. Nobela amaitu nuen, pentsatu nuen oso ondo etorriko zitzaizkiola ilustrazio batzuk, eta Nikolas Txikiaren liburuak etorri zitzaizkidan gogora, orri bakoitzean marrazki txiki batzuk dituztelako. Horrelako zerbait nahi nuen baina bertsio heldu batean. Eta, aldi berean, agian Simonidesen marrazki batzuekin oroitu nintzen, sanferminei buruzko komiki baterako martetarrak marraztu zituelako. Nobela bidali nion, eta amaitu baino lehen proiektuan sartzea erabaki zuen, oso freskoa iruditu zitzaiolako, oso bizkorra eta *rabiosoa* ere bai.

Pamplona-Volkswagen, sexu es-tortsioa pairatzen duen emakume protagonista, Bolivia txikian bizi dena... salaketa bat ere al da?

Bai, umorearen eta zientzia-fikzioaren itxurapean hainbat gai jorratzen dira, hala nola eskuin muturraren gorakada, kapitalismo basatia, gentrifikazioa, indarkeria matxista... Cholitak estortsioa egiten diotenei aurre egitea erabakitzen du, talde ultra batzuei, burua jaitsi beharrean; bistan da horretan zerbait sinbolikoa dagoela.

Zientzia fikzioa da. Lehenengo aldiz aritu zara genero horretan? Nola sentitu zara?

Ipuinen batean zientzia-fikziora, distopiara eta horrelakoetara hurbildu naiz eta, egia esan, sormen-askatasun handia ematen duen generoa da, fantasiarako aukera ematen dizuna, itxuraz eldarniozko (delirio)



gauzak asmatzeko aukera ematen dizuna. Nahiz eta gero, agian, ez daude hain urrutit. Liburuan erabiltzen den txanpona, adibidez, euroyena da, eta gaur egungo panorama ikusita... Zientzia fikzioak, batzuetan, aurrea hartzeko gaitasuna du, nire ustez, benetan gertatzen ari diren gauzak puzten dituelako, eta hori ohartarazteko erabiltzen da. Nahiz eta batzuetan ez duen ezertarako balio. Guk, adibidez, *Un mundo feliz*-eko herritar zoriontsu baina menderatuen antz handia dugu, gure drogekin, mugikorrarekin, sare sozialekina...

Eta hizkuntza inklusiboan idatzia.

Bai, estilo-ezaugarri gisa erabili dut, zerbait futurista gisa, baina baita normalizatu daitekeen zerbait bezala ere, eta ondo legoke hori gertatzea, ez dakit erabiltzen dudana formula horrekin edo beste batekin. Gaztelania historikoki matxista izan da, eta horren aurrean azken urteotan erreakzioak izan dira, gero eta gehiago erabiltzen dira horrelako pluralak... Nik Filologia ikasi nuen, eta irakatsi zidaten erabilerak araua

egiten duela, ez aldrebes; beraz, azkenean hizkuntza inklusiboa kalean erabiltzen bada, normalizatu egingo da, eta RAEk, orain uko egiten diona onartu egin beharko du. Izan ere, eleberrian badago 2085eko RAEren ohar bat, hizkuntza inklusiboa onartzen duena (eta ohar horretan ohorezko akademikoa ere izendatzen da hizkuntza horren aitzindari bat, Patxi Irurzun delako bat, zeren eta, egia esan, espainiar literaturan nik behintzat ez dut horrela idatzitako fikziozko beste lanik aurkitu).

Eta, Pepitas de calabaza argitatearekin atera duzu, mailako argitatearekin da, pozik?

Bai, bai, oso, argitatearekin zalea naiz, bertan argitaratzeak kalitatezko zigilua ematen dizu, argitatearekin independente ospetsuenetako bat da. Nik duela urte asko ezagutzen nuen editorea, baina inoiz ez zen elkarrekin lan egiteko aukerarik sortu, eta liburu honekin ia kasualitatez sortu zen. Espero dut elkarrekin gauza gehiago egitea, izan ere ideien bat badago.

Martxoan aurkeztu zenuen Iruñean. Zer moduz izan da harrera?

Iruñeko aurkezpenarena nire lagun Iban Ainzibururen ideia izan zen, Franziska diseinu estudiokoa, erdi eroturik dagoena. Oso polita izan zen Peruko folklore talde baten cholitek aurrekua dantzatzea bere erara. Berdin izanen zen gaizki ateratzea edo oso martzianoa izatea, hori zen kontua. Oso hungigarria izan zen, inoiz egin ez zen zerbait. Sare sozialetan erreproduktzio asko ditu. Horretaz gain, liburuak Punta Umbriako (Huelva) EDITA jaialdian aurkeztu dugu, Antsoingo Komiki Boom-en eta Gasteizen aurkeztuko dugu maiatzaren... Ultzaman ez dakit zerbait egingo dudana, lotsa ematen baitit neure burua Ostiral Kulturaletan programatzeak, baina liburutegira hurbiltzen den orori bakarka kontu diezaioket liburuari buruz nahi duena.



2025eko martxoan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

IMOTZ Muskitz

Alaia Herrera Ibero, Fernando eta Alazneren alaba, Muskizko **Bentazarrean** jaio zen 2025eko martxoaren 25ean.

ULTZAMA Lizaso

Hegoa Etxepare Nagore, Goreti eta Asierren alaba, 2025eko martxoaren 17an sortu zen.

“Aupa bat gure gurasoei!”



▲ Hegoa ttikia, Aiur anaiaren altzoan, ahal duen bezala

ULTZAMA Alkatz

Francisco Indaberea Osinaga, **Joaneko** semea, martxoaren 25ean hil zen 78 urtetan.



▲ Francisco Indaberea

Heriotzak:

ATETZ Beuntza

Constantino laben Mariñelarena, **Adameneko (Aimeneko)** nagusia, martxoaren 22an hil zen 85 urtetan.



▲ Constantino

“Beti izanen zaituztegu gogoan”

ODIETA Anotzibar

Jose Antonio Mutilba Eguarats, **Mastalberriko** nagusia, martxoaren 11n hil zen 82 urtetan.



▲ Antonio, Anotzibarkoa

Gaskue

Rita Elizondo Aragon, **Lopeneko** etxe-koandrea, martxoaren 25ean hil zen 96 urtetan.

Arraitz-Orkin

Joaquin Burguete Pagola, **Bordaxuriazpiko** nagusia, martxoaren 8an hil zen 81 urtetan.


Iraizotz

Micaela Olague Oskotz, martxoaren 22an hil zen 94 urtetan.



▲ Micaela Olague

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

ETA AURTEN... ZERTAN ARI GARA ULTZAMALDEKO BERDINTASUN ZERBITZUAN??

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II.PLANA

EBALUATZEN

ERRONKAK IDENTIFIKATZEN

III.PLANA DISEINATZEKO

ZEHARKAKO HELBURUAK:

1

PLANAREN JARRAIPENA ERRAZTEKO
TRESNA SORTZEA

2

BERDINTASUN ARLOAK BERE LANA
EGIN AHAL IZATEKO BEHARREZKO
SAREAK ETA HARREMANAK SUSTATZEA:
HERRITARREKIN, UDALETAKO
TEKNIKARI ETA ZINEGOTZIEKIN, ZEIN
MANKOMUNITATEKO BESTE ARLOEKIN

3

BERDINTASUN POLITIKEN INGURUKO
OINARRIZKO TREBAKUNTZA LANTZEA
PROZESUAN PARTE HARTUKO DUTEN
PARTAIDEEN ARTEAN

LANERAKO OINARRIAK ZEINTZUK IZANGO DIRA?

- ELKARLANA
- PARTAIDETZA
- KOMUNIKAZIOA
- HEZKUNTZA PROZESUA
- ERAIKUNTZA KOLEKTIBOKO PROZESUA
- NORBERAREN BIZIPENAK ETA PENTSAERAK
ABIAPUNTU

ETA HAU NOLA?

1

AURRELANAK (otsaila-martxoa)

EMAITZA

Prozesua antolatu eta betetze maila
neurtzeko abiapuntua jarri.

2

II. PLANA EBALUATU ETA ERRONKAK IDENTIFIKATU (apirila-maiatza)

Udaletako alkatetzekin, idazkariekin eta
mankomunitate eta udaletako langileekin
saioak.

EMAITZA

Planaren ebaluazioa eta aurrera begirako
erronken txostena.

3

HERRITARRAK ENTZUN eta PLAN BERRIA DISEINATU (maiata-iraila)

Udaletako zinegotziekin, mugimendu
feministarekin eta eragileekin saioa.

EMAITZA

Bailara bakoitzaren beharrak eta erronkak
identifikatu eta III.Planaren zirriborroa.

4

PLAN BERRIA KONTRASTATU (iraila-urria)

Udal-idazkariekin, zinegotziekin,
mankomunitateko langileekin, mugimendu
feministarekin eta eragileekin saioak.

EMAITZA

Berdintasunerako III. Planaren behin betiko
txostena eta jarraipenerako tresna.

5

PROZESUA BALORATU ETA KOMUNIKATU (iraila-urria)

Plana onartu, emaitza komunikatu eta
prozesua baloratu.

EMAITZA

Plana ezagutarazteko ekimena herrietara.